



Iturria: "Monjongo Dassançaren *Laborarien abisua* (1692) eta honen bi aldaera ezezagun: Jean pierre *Chabalgoityk idatzia* (XVIII.m.) eta Bertrand Goyenetcheren *Marechalaren liburua* (1831).  
Aurkezpena, edizioa, oharrak eta hiztegia, ASJU XXXIII-1, 1999, 239-304..

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/X/XabalgoitiLaborarien.htm>

## LABORARIEN ABISUA

Jean Pierre Xabalgoiti

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

[1-10 or. Falta dira]

hori egin bezain sarri har ezazü laur ontza neprün bihi era beste laur ontza konstantinopolitana eta ontza bat nefar gaitz larritik eta hurak algarrreki onxa xeheka eta pintubat huretan onxa herakitürrik doi hoztü denian emozü idiari hartarik edatera eta ezpada lehen aldian idia sendotzen kontinia ezazü zonbait egünez suitan.

## 6

### *Idiak sabeltarxüna dianian xer egin bebar den sendotzeko*

Ezagütüren noiz dian eritarzün hura imoretan ordenariozki eta ordian eztizozüla eman jatera ez eta edatera, bige edo hirur egünez zonbait mahartze osto baizik eta hurak ere arduan trenpatürrik eta mirra güti-bat arduan trenpatürrik emozü idiari edatera.

Eta gero hirur egünen bürian presenta izozü plan-plaigtaiña edo kamamila edo zamari büztan deitzen den belharra.

Eta ondoko egünetan gogua eman izozü edatera emaitian emozü erramü ostuareki trenpatürrik hogeï eta laur orenez edo bestela heraki erazirik erramü ostueki doi hoztü denian zonbait egünez idiari edatera goizean barurrik.

## 7

### *Idiak erorteko mina dianian xer egin bebar den*

Idia ezagütüren düzü bere maneria partikularretatik jesto eginen dü, ahua okhertürrik, zankhoak ere ahotik baruxa dukola, eta bigüa edo hirur



orenen bürrian, deus ezpeilü bezala jaikiren da, eta ordenarizki eritarzuna ükheiten dizie bi hilabetetarik bi hilabetetara eritarzün haren sendotzeko.

Har ezazü pintubat ardu hobenetik eta astoaren zankoko azazkülütik eta idiaren belarreko ezürretik limatürrik ontza bat eta onxa xehekatürrik trenpakhin hartarik idiari edatera hogeï egünez goiz oroz emaiten deriozularik barurik ahotik behera idiari.

## 8

### *Idiaren kolpien eta erorten dürenian sendotzeko zer egin behar den*

Noiz ere sendi beütüzü idia erori dela eta badiala inflamatione eta kolpia den lekhia, hur hotzez onxa freskatüko derozü eta gero urin hotzez bereka izozü edo urdakhiz, eta gogortia bada ezin haboro hun dikezü seiñatzia bertan sendotzeko.

## 9

### *Idiaren leber düren edo doloren kontre zer egin behar den*

Har ezazü ahürbat li-azi eta beste ahürbat kamamilla eta hurak onxa heraki erazi pinkubat huretana eta makhila batez lahas bulia bezala, eta gero oiha batetan ezar enplastü hura non ere baitü leherküra edo hanküra edo orano gogortarzuna sendi beütükezü idiari.

## 10

### *Idiak liüketarik erranura aztüra denian zer egin behar den berbala*

Dirisketako erranküra hori gaitz da idiari egiteko mobimentü handian kontüan hegiteko.

Bena halere egiozü lehenik hur beroz manjeteraren ükhüztia eta gero belhar ürin hunez fretatzia eta ordian idoki itzazü thegüi hartarik: urdiak, behor eta beste kabale suertiak salbü asto zonbat amorekatik eta harzara eman eztizen eritarzün.

## 11

### *Idiak erraiak gastatürrik dütienian zer egin behar den*

Har ezazü hirur ontza thürmentina eta eremedi hura: haur baten eskiaz idiari gibelesko aldetik sar erazi izozü ahalik barnena thürmentina hura.

Edo ezpadüzü thürmentinarik egiozü gantz gezaz edo ezpere urin hurez hustü gabe hirur goitzez.

## 12

### *Idia eztülez alakatürrik denian zer egin behar den*

Har ezazü ahürbat hisopa eta hura heraki erazi pinta erdibat huretana eta gero iraz eta eman edatera eta ordian emozü phorrü osto ahürbat xehekatürrik onxa eta garagar irinareki batian hurian trenpatürrik.

## 13

### *Idiak baxa labür denian zer egin behar den*

Egiozü beharrietan xilo eta gero helebore deitzen den belharra xerka ezazü gargandilla beilü bezala eta harek sendo eraziren dü labürski.

## 14

### *Idiak alamaketan min dünian zer egin behar den*

Ezagütü düzünian idiak alamaketan ornaua doloriak dütia, har ezazü hirur ontza alzipre eta hura eraki ezazü biñagian eta gero onxa xehekatürrik idiari ezar izozü doloria dian lekian.

Bestela aldiz seiña ezazü almaketako zaiñetik eta gero phorrü ahürbat hurian onxa herakitürrik hartarik emozü pintu bat aldian idatera sendo arthio.



## 15

*Idiak lüpiaren kontreko erremedioa nola sendotzen den idia eta zer egin behar den*

Lüpiaren erremedirik hobena düzü phikatzia eta gero burra freskez zauri haren fretatzia eta goiz arrax oroz kanbiatzia eta freskatzia.

## 16

*Idiak golardua edo lepbua hantürik dianian zer egin behar den.*

Idiak golardua dianian lephoan dizezü eta uste badüzü badila mat-heriarik xilatüren düzü burduiña gorri batez eta gero emozü xilo hartara asün zain gütibat eta gero seiñatüren düzü behari gibeletik edo bellarretik eta izanen da sendorik.

## 17

*Idiak hantürik denian zer egin behar den*

Behar düzü ükhen ürrüts tartabat beso baten üngürünia lüze eta haren büria li apür batez üngüratü eta plegatü eta onxa ollioz edo bestela urin hotzez berekatü eta idiari gibeletü sar izozü errain kürütüxiala drano.

Eta ez haboro eta gero paseia erazi ezazü idia eta orano denbora berian barra batez bidek barraren bi bürietarik lothürik onxa sabella bereka izozü.

## 18

*Idiak zombait ainbarba edo animal gairto jaten dianian zer egin behar den*

Idiari emozü lehen beno lehen behi ezne edatera edo ezpere egizü phiko malatüz arduareki egos erazirik, emozü pintubat aldian edatera sendo artio idia kontinia.

## 19

*Idiaren hanküren sendotzeko zer egin behar den*

Har ezazau ahürbat andere dana maria arrosaren thipula edo lilia eta beste ahürbat konstantinopolitana eta hurak onxa egos erazi biñagrian eta

gero ezar enplastrü hura oihal edo larrü batetan hanküra dian lekhian eta laster xilatüren ziozü eta lehertüren zaionian xahat izozü zauri hura urinez edo phixaz goiz eta arrax oroz sendo arthio.

## 20

*Idiaren zankboak hantürik dütienian zer egin behar den*

Har ezazü zombait ahür sabiko osto eta hurak onxa heraki erazi urinin, eta gero ezar ezazü oihal edo larrü batetan enplastü hori, era ezar izozü idiari hanküra dian lekhian eta süitan hun dükezü hotzzik ere enplastü hura.

## 21

*Idiak aztapar edo axür boinün min dianian zer egin behar den.*

Ordian idiaren aztaparra lantzeta batez xehekatü behar ziozü aphür bat barna eta gero erra izozü phiko hura, ahal bezain arhizki eta gero urinez onxa freta sendo arthio zoinbait egünez.

## 22

*Idiak axür hoiña kolpa-kolpbatürik edo amürratürik dianian zer egin behar den.*

Lehenik behar dizü hoing hark onxa zhahatü fondamenila drano eta gero urina zihuareki lahastekarürik goiz arraxetan onxa fretatü bost edo sei egünez eta orano kontinia izozü arduz edo biñagrez ezti gütibareki lahastekarürik sendo arthio.

## 23

*Idiak barrabillak hantürik dütinian zer egin behar den*

Har ezazü klera gütibat eta hura biñagriareki nahas eta egin enplastü edo drogabat eta gero harez bereka izozü hanküra eta idortü denian bere-



ka izozü berriz gantz gezaz goiz eta arraxetan edo orobat p(o)txo baten behasünaz edo urde minez bereka izozü laster sendoren ziozü.

## 24

*Idiak adarra hausten dianian zer egin behar den*

Ordian behar dü biñagrez gatzaz eta olloz onxa freta izozü adar lek-hia eta gero gantz urinez eta erreziñaz algarreki lahastekatürrik, harez onxa freta izozü sazpi egünez goiz arrax oroz.

## 25

*Idiek begiak hantürrik dürtienian zer egin behar den*

Egizü enplastia garagar irinez eta ezti gütibateki era gero harez onxa bereka goiz arraxetan.

Bena nula ezti delä kausa üllick fatigüa beliroie bereka izozü begi ingürüniak alkatrenaz edo urinez ... goiz oroz.

## 26

*Idiak begietan xuria dianian zer egin behar den*

Har ezazü sei armuniak gütibat eta ezti gütibat eta gero lahas algarreki eta hartaz onxa bereka edo bestela orobat gazna zaharraren zizkaz edo herhaxaz axa lekotik.

## 27

*Idiek begietan nigar dianian zer egin behar den*

Egizü enplastia garagararen irinaz eta harez bereka izozü onxa goiz arraxetan, eta bestela basa arrosaren zaingüa ardu xurian herakitürrik eta ezti ezaririk bereka izozü.

## 28

*Idiak thiña dianian zer egin behar den*

Har ezazü ahürbat khedarre eta ahür erdibat sofre lili eta laur baratxuri bürü eta hurak algarreki onxa xehekatürrik freta izozü idiari thiña dian lekha hirur goitzzez era egün hetan bustatzetik begira.

## 29

*Idiak aldüra edo larrüdüra dianian zer egin behar den haren sendo erazteko*

Har ezazü kalitz onxa huntietarik eta jorrietarik eta hurak zetabian onxa igaren onduan haren erhaxaz onxa fretatzia.

## 30

*Idiak süge usukien edo phozu erabiatiaren kontra zer egin behar den*

Bereka izozü usuki hura ollio jenebrez edo bestela har ezazü laur ontza sablu zaharretik eta gero pintubat biñagretan hura onxa hurt erazi eta harez onxa xahat izozü onxa usukia hirurretan.

## 31

*Idiari golardoa dianian zer egin behar den sendo erazteko*

Eritarzün haren erremediorik lasterrena mihi petik seiñatzia eta gero phorrü ahürbat kapis, sabina, morszeaus, diabolios, algarreki herakitürrik eta gero irazirik edatera emozü idiari hur hartarik.

Eta gero ontzi batetan ardu hobenetik li-azi maris, hauxareki nahasirik, egizü enplastia eta gero harez onxa bereka lephua.

## 32

*Idiari azazküliak erorten zaizxonian zer egin behar den sendotzeko*

Har ezazü thürmentina ezko holliti eta ezti ontza bedera eta hurak algarreki hur erazi dütüzünean fitez ezar izozü idiari aztaparran.



## 33

*Idiak odolez phixa egiten dianian zer egin behar den sendo erazteko*

Ordian idiak eztizü deusere edan behar, bena har ezazü hirur ontza artho irin, eta triagua eta pintu erdibat ardutan heraki erazi eta hartara emozü sofre bilhobot eta edari hartarik emozü idiari edatera hirur egünez goiz araxetan eta sendo arthio kontinia izozü.

## 34

*Idiak ezin phixa egiten dianian zer egin behar den*

Idiak phenatzen dira ebiltian ezin phixa egiten dianian, seiñatüren düzü mihiko zaiñetik eta gero hirur goizzez edan eraz izozü ardu xurian lahastekatürrik ollio hunetik eta ezti gütibat süian epheltürrik amoderatüki.

## 35

*Idiak harria dianian zer egin behar den*

Noiz eta ere ezagütü beitzü idiak harria diala phikatzia da eta idokitia hobena eta segürena, bena ezpada posible amenx emozü erremedio haur, har ezazü bi ontza millü marin eta erro ontza laur dinbat espezia itze eta haren erdia piper eta gero hurak onxa xehekatürrik emozü idiari edatera ardu ephelian eta kontinia zombait egünez aitzinna.

## 36

*Idiak bereitidüra dianian eta gogortürrik denian zer egin behar den*

Aski düzü malbaren egostia bürriareki lahasirik eta hartarik edatera emozü zortzi egünez eta natüra ere bereka izozü hur hartarik zombait goitzez.

## 37

*Idiak mihi ondua hantürrik dianian zer egin behar den*

Ezagütü düzünian idiak mihi ondua hantürrik diala, denborarik galdü gabe xila izozü mihi peko zainnegti, bürduña gorri batez edo bestela lan-zetta zorrotz batez eta idokozü odol aphürbat eta gero zauri hura freta izozü ollio hunez eta gatzez algarreki lahastekatürrik eta kontinia izozü.

Amorekatik kanporat juan dakhion hur hura eta thenpora hartan jatera emozü idiari belhar fresk, eta ezpadü appetürrik emozü arrautzebat, ezti güti bateki hur ephelin edatera eta hantik aitzina emozü zombait gaiez bihi jatera edo askari mestüra prestetik alxatütik.

## 38

*Idiaren erraiñeko minaren sendotzeke zer egin behar den*

Ezagütüren düzü plaiñü egitetik eta partikulazki traiña eratziren derizo zankhoak zointan ezin heda beitzatke edo hedatürrik badütü ezin bil beitzatke alphée-etarik ere ezin balia daite eta büztana ere ezin zotüla ez eta biribilka eta haren gerrentzia ere josia date eta gibekeko traina ere osoki desgisatia e... enkas eta inflammationerik badü phüntü eta kasü hartan eta orano pixa odolla üdüri eta dena ere güti eta grado hartan hanitz iraiten badü ezte harez hunik.

Besta ezpadü garridüra baizi idoki izozü odol gütibat seiñatzen düzülarik almaketarik eta phorrü ahürüta bat hur xahü batetan trenparürrik eta hur hartarik, zortzi egünez emozü idiari edatera barurik.

*Lüpe belsaren erremedia*

Lehenik zinex seiña odola aphür butilabat ardu beltz godeletbat binagre askoz ahürtabat nefar gan ahürbat baratxuri xehekatürrik ahürbat xerment haux eta ahürbat kherra de egosirik iraskina ahotibehera eman.

Lihaxi xaxüta bat egosirik minen gañen hezi hanküra ageri bada.

**39***Borda edo thegi eta kabalen egon lekhien parfumatzia aire edo kbozji gairtuen  
kontre*

Noiz ere sendi beitzüü kabaletan aire gaizto edo theiütarzün hetarik hartüko düzü gaitz haren kontre hun diren eremedioak zoin beitrade ontzabat intxentzü eta beste ontzabat sofre eta bi ontza erreziña eta hurak algarreki lahasi düüzünian ezar izezü xofeta batetan inkhaz aphürbat süiareki eta khe hartzaz berritan borda edo thegia üngüra eta kontinia drogak akaba hartio parfumatzia,

Eta hura egin bezain sarri har ezagü ahürbat eramolia eta erramü maiorana eta kamamila.